

## 8. atala: Gidoilaria

### 8.1.- Entzun zortzigarren atala eta aukeratu erantzun zuzena:

#### Astronautak kantu bat entzuten ari dira aireratu aurretik...

- Kevinek kantu kutsakorra dela esan eta bolumena jaisteko eskatu dio teknikariari.
- gidoilariaren apeta izan da aireratzeko aukeratutako kantua, eta Tasioki ez zaio egokia iruditu.
- astronautei gustatu zaie jarritako musika, une historiko horretarako aproposa iruditu baitzaie. Hala ere, musika euskalduna gogokoagoa dute.

#### Aireratu direnean...

- astronauetek arazoak dituztela adierazi dute, ez baitakite zenbat denbora behar duten helmugara iristeko.
- astronauetek argi daukate gidoilariak baino gehiago agintzen duela Eskisabel kapitainak.
- gidoilariak duen agintzeko ahalmena gehiegizkoa iruditu zaie bi astronauetei.

#### Gidoilariak atala amaitzea erabaki duela jakin ondoren...

- Tasiok bere gustuko musika jarri du, gidoilaria pikutara bidalita.
- Kevini ez zaio gaizki iruditu, baina gustatu zaio Tasiok aukeratutako Laboaren abestia.
- Kevinek eta Tasiok Xabier Leteren abestia jartzea erabaki dute.

### 8.2.- Jarri arreta Kevinek aipatzen duen perpaus honetan:

“Hemen norbait Jainkoa izatera jolasten ari da... Hey Tasio, ze ongi geratu zaidan esaldia e!”

“Jolastu” aditza maiz nahasten da “jokatu” aditzarekin. Zein da desberdintasuna?

“Jokatu” galtzaileak eta irabazleak daudenean egiten da: futboleak, pilotan, kartetan...

“Jolastu” edo “jolas egin”, osterak, lehiaketarik ez denean erabiltzen da: soka-saltoan, bale-baleka, itsu-itsuka...

**8. atala: Bakarka**

Erreparatu “jolastu/jokatu” aditzen erabilerari eta adierazi esaldi hauek zuzenak (✓) edo okerrak (✗) diren:

	(✓)	(✗)
Pilota-jokoan sakea edo botea itzultzeari errefera esaten diote Iparraldean.		
Karta-jolas bat da pokerra.		
Suarekin jolasa, arrisku demasa.		
Dirutza irabazten du Administrazioak jolasaren industrietatik.		
Futbolean ondo jolastu da.		
Baloiarekin jolastu da.		
Ezkutaketan jokatzeko nuen txikitan.		



## Transkripzioa (02:34)

T- Zergatik ari gaituk entzuten kantuk hau aireratu aurretik?

K- Ze kantuk?

T- Ez al duk entzuten... irratiko teknikariari esango zioagu bolumena igotzeko...

T- Nahikoa, nahikoa, nahikoa duk! Teknikariak jaitzi dezala musika, mesedez.

K- Kutsakorra da.

T- Ei, Iurreta!! Ez al zegoen kantuk euskaldunik une historiko honetarako?

E- Ez da gure erabakia izan, Tasio. Gure destinoa gidatzen duen gidoilariaren kapritxoa izan da.

6, 5, 4, 3... Fire!

E- Iurreta deika, Iurreta deika!

T- Esan, Iurreta.

E- Zer moduz?

T- Guztia kontrolpean. Arazorik gabe.

K- Eskisabel kapitaina?

E- Bai?

K- Iristeko zenbat falta da?

E- Baina oraintxe aireratu zarete eta!

T- 48 ordu, 22 minutu eta 15 segundo falta zaizkigu.

K- Eskisabel kapitaina?

E- Bai, Jhonson, oraindik asko falta zaizue.

K- Ez, ez da hori. Apur bat moskeatuta geratu naiz gidoilariaren kontu horrekin.

E- Ba nik ez daukat hor zereginik.

K- Orduan, gidoilaria da jefea?

E- Ni baino jefeagoa behintzat bada.

T- Baina lehendakariak baino gehiago agintzen al du?

E- Hemen bai behintzat.

K- Hemen, norbait, Jainkoa izatera jolasten ari da... Hey, Tasio, ze ongi geratu zaidan esaldia, e?

T- Bai, gidoilari batek idatzia zirudik.

E- Tasio, Jhonson, gaurkoz nahikoa da.

K- Nahikoa?

E- Bai, amaitu da gaurko atala.

T- Gidoilariak erabaki du hori ere?

E- Nork bestela?

K- Baina zergatik egin behar diogu kasu gidoilariari?

E- Ez daukagu beste aukerarik, Jhonson.

T- Ba...ba atal honen amaiera musika nik jarriko dut.

K- Hori da, Tasio!

E- Baina gidoilariak honezkero aukeratu du amaiera musika bat.

T- Begira, gidoilariak musukatu ditzala nire barrabilak.

K- Tasio lehendakari! Tasio lehendakari!

T- Nahikoa, nahikoa duk, Jhonson. Utzi kantua entzuten!

K- Bua, ze ona, Laboa.

T- Lete, originala.

K- Baina ez al ziren pertsona bera?

8. atala: Bakarka

## Erantzunak

8.1-

b)

c)

a)

8.2-

	(√)	(×)
Pilota-jokoan sakea edo botea itzultzeari errefera esaten diote Iparraldean.	√	
Karta-jolas bat da pokerra		×
Suarekin jolasa, arrisku demasa	√	
Dirutza irabazten du Administrazioak jolasaren industrietatik		×
Futbolean ondo jolastu da		×
Baloiarekin jolastu da	√	
Ezkutaketan jokatzen nuen txikitan		×